



EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA
TESTULIBURUEN DOAKOTASUNARI
BURUZKO
TXOSTENA

LAGUNTZAILEA:



1. DOAKOTASUNAREN AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

Azken hilabeteotan testuliburuaren doakotasunaz berpiztu den eztabaidaren aurrean, Euskal Editoreen Elkarteak honako dokumentua osatu du doakotasuna ezartzeari buruz duen iritzia agertzeko, eta doakotasuna zein ereduren arabera aplikatu behar litzatekeen garbi adierazteko. Izan ere, EEEren ustez, ez dira ezagutzen doakotasuna ezartzeko orduan egon litezkeen aukera ezberdinak, ezta aukera edo sistema horietako bakoitzak dituen gabezia eta kualitateak eta beronen aplikazioak ekar ditzakeen ondorioak ere. Izan ere, neurri hau era batera edo bestera aplikatzeak, ondorio guztiz ezberdinak ekar diezaizkioke liburugintzaren sektoreari zuzenean eta euskal gizarteari zeharka. Premiazkoa ikusi dugu, hortaz, doakotasunaz argitaletxeok dugun iritzia adieraztea eta gizarteratzea.

Lehenik eta behin, testuliburuaren beraren funtzioa eta garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ikasketa prozesuaren ardatza testuliburu da gaur egun. Ikasleek jasoko dituzten edukiak testuliburuetan biltzen direnez, testuliburuak eragin zuzena du datozen belaunaldien ezagutzan eta munduaren ikuskeran. Beraz, egungo irakaskuntza sisteman, oinarritzko eta ezinbesteko funtzioa betetzen du testuliburuak. Zentzu horretan, argitaletxeok, eduki hauen ekoizleok, funtzio publiko bat betetzen eta ematen dugu. Zerbitzu publikoa izaki eta horrek duen garrantziagatik, aintzat hartua, zaindua eta zerbitzua hobetu ahal izateko bitartekoz lagundua izan behar duela uste dugu.

Erantzukizun handiko funtzioa betetzen duen ekoizpenari buruz hitz egiten ari gara beraz, eta testuliburuaren gainean hartzen diren erabaki guztiak eta horien ondorioak ere, garrantzi maila horren arabera ulertu behar direla irizten diogu, egun eztabaidagai dugun doakotasunaren gaia bezalaxe.

Testuliburuaren doakotasunari buruzko eztabaida ez da berria. Aldarrikapen hori, izatez, laurogeiko hamarraldiaz gero planteatzen ari da eta irakaskuntzaren doakotasuna eskatzen duen gizartearen eskabideen eremu zabalagoan behar da kokatu. Testuliburuaren doakotasuna, derrigorrezko eskolaldiaren doakotasuna bezala, oinarrizko eskubidetzat dute hainbat hezkuntza eragile, politikari eta norbanakok.

Hortaz, testuliburuak familiei eragiten dieten gastua arindu beharra oso barneratua dago gizartean. Eta orain arte doakotasuna bere horretan ezarri ez bada ere, zailtasun ekonomiko larrienak dituzten familiak lehenetsiz, testuliburuak erosteko laguntza eta beka sistemak abian dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibide moduan, aurtengo ikasturterako, unibertsitateaz kanpoko ikasleentzako dirulaguntzak 26.7.2005 aginduaren arabera arautzen dira. Ikasmaterialak erosteko laguntzei dagokienez, Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta Nagusien Hezkuntzarako 71€-ko laguntzak ematen dira; Lehen Hezkuntzarako eta Hezkuntza Berezirako 112 €-ko laguntzak, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako 131 €-ko laguntzak. Esan bezala, familia bakoitzaren diru-sarreraren arabera ematen dira laguntza horiek.

2000. urtean, CEAPAk (Espainiako Gurasoen Elkarten Konfederazioak) testuliburuaren doakotasunaren aldeko kanpaina bati ekin zion, Espainiako

Estatuko hainbat autonomia erkidegotan testuliburuaren doakotasuna bultzatzeko asmoz. Horrenbestez, 2000. urtean bertan, Eusko Legebiltzarrak testuliburuaren doakotasunari buruzko proposamen ez-legezko bat onartu zuen, baina gaur egunera arte ez da abian jarri. Orain, 2005eko irailean, hain zuzen, PSE-EE talde parlamentarioak Eusko Legebiltzarrean testuliburuaren doakotasunari buruzko proposamen ez-legezko bat aurkeztu ondoren, berriz piztu da doakotasunari buruzko eztabaida gurean. Ez-legezko proposamen honen aurrean, Gobernua osatzen duen hirukoak (EAJ, EA eta EB), testuliburuaren erabilera eta finantzaketari buruzko proposamen bat presta dezan eskatzen zion Hezkuntza Sailari, sei hilabetako epean aurkeztekoa.

Eskakizun zehatz horri 2005eko azaroaren 23an PSE-EE, EAJ/PNV, EA eta Ezker Batua alderdiek adostutako beste hau erantsi behar zaio:

“Enmienda de transacción”

“El Parlamento Vasco, reconociendo que los Libros de Texto constituyen un material de trabajo esencial para el alumno y que su precio representa una importante carga para algunas economías familiares, insta al Gobierno Vasco a presentar en la Comisión de Educación y Cultura para el mes de marzo como plazo máximo, una propuesta, para su implantación en el próximo curso 2006-2007, que permita combinar la financiación del material escolar a los alumnos en la enseñanza obligatoria y la educación en valores mediante el respeto a la práctica del préstamo y la conservación del libro como un bien cultural.”

Horren guztiaren aurrean EEEko argitaletxeok argi adierazi nahi dugu ez gaudela testuliburuaren doakotasuna ezartzearen kontra. Derrigorrezko hezkuntzaren (testuliburuak barne) doakotasuna oinarritzko eskubidea dela

ulertuta, argitaletxeok ez dugu eskubide hori bermatua izan dadin oztoporik jarri nahi. Baina gure kezka agertu nahi dugu, izan ere, neurri hori era batera edo bestera ezartzen den, ondorio guztiz ezberdinak eragingo dizkie argitaletxeei eta liburugintzako sektore osoari.

EEEaren iritziz, testuliburuaren doakotasunak zuzenean liburugintzaren sektoreari eta zeharka euskal gizarteari eragingo dizkion ondorioak ez dira neurtu. Mailegutza sistema ez da doakotasuna bermatzeko sistema egokia gure ustez, eredu honekin lortu nahi diren helburuak ez dira betetzen, eta gainera, ondorio larriak eta itzulezinak eragin ditzake, liburugintza gogor kaltetzeko modukoak. Badira, ordea, testuliburuaren doakotasuna ezartzeko bestelako sistemak, sektoreari kalterik egin ez eta, gure ustez, halako ondorio kaltegarriak ekartzen ez dutenak.

2. TESTULIBURUEN DOAKOTASUNA: EREDUAK

Funtsean bi dira testuliburuaren doakotasuna ezartzeko orduan erabili izan diren ereduak: mailegutza sistema eta zuzeneko laguntza. Baina eredu bakoitzaren nondik norako zehatzetara pasatu aurretik, liburugintzaren baitan testuliburuaren ekoizpenak dituen berezko nolakotasunak ezagutzea premiazkoa dela uste dugu, doakotasunaren ezarpenak eragin ditzakeen ondorioak hobeto ulertzeko.

2.1. Testuliburuaren ekoizpena

Argitaletxeok kultur industria bat osatzen dugu, euskarazko argitalpena eta sormena era iraunkor eta sendo batean bultzatzea ahalbidetzen eta ahalbidetuko duena eta kultur aniztasunaren aldeko apustu garbia egiten dugu gure eguneroko jardunean.

Testuliburuaren ekoizteak ahalegin ekonomiko handia eskatzen die argitaletxei. Izan ere, testuliburuaren atzean aditu, sortzaile eta profesional talde handia biltzen da. Talde-lan kate luzea eskatzen du testuliburuaren ekoizpenak, eta horrenbestez, argitaletxea inbertsio handiak egitera behartuta dago testuliburuak argia ikusiko badute. Jakina da, liburugintzaren sektorean orohar eta testuliburuaren kasuan bereziki, merkatu-lehia handia dagoela, eta kompetentzia edo lehiak, eskaintzaren aniztasunaren eta ikasliburuaren kalitatearen alde egiten badu ere, jardunean dabilen argitaletxea arrisku handiak hartzeraren behartzen du.

Egin beharreko inbertsioen tamainaz hobeto jabetzeko, datu esanguratsu batzuk emango ditugu. Alegia: egun, liburuki bat (60 orrialde) ekoizteko egin beharreko gutxieneko inbertsioa 25000 € ingurukoa da, eta bataz besteko salmenta prezioak kontuan izanik, eta urte batean saltzen den ale kopurua aintzat hartuta, 3-4 urte inguru behar izaten da egindako inbertsioa berreskuratzeko.

| Orrialdeak | Inbertsioa | Salneurria | Saldu beharreko aleak | Zenbat urtean berreskuratu |
|------------|------------|------------|-----------------------|----------------------------|
| 60 | 23.000 | 4,25 | 9020 | 3,6 |
| 148 | 55.000 | 13,5 | 6790 | 2,7 |
| 348 | 125.000 | 24,5 | 8500 | 3,4 |

* Taulan azaltzen diren zenbakiak gutxi gorabeherakoak dira, ez dira zehatz mehatz hartu behar, liburu guztiek ez baitute lan eta beraz kostu bera, ez eta prezio eta salmenta kopuru bera ere. Batazbestekoak erabili ditugu orientagarri izan daitezen.

Euskarazko merkaturua mugatua da, mugatuegia sarritan, eskaini beharko liratekeen gai eta arlo guztiak errentagarri bilakatzeko. Jakintzagai guztietan merkatu eskaintza zabala bermatze aldera, baina, zenbait kasutan argitaletxeak ekonomikoki errentagarri ez zaizkion testuliburuak argitaratu izan ohi ditu. Galerak sortzen dituzten liburu hauek, errentagarri diren liburuek eragindako etekinari esker argitaratu ohi ditugu, nahiz eta euskal merkatu mugatu honetan asko kostatzen zaigun errentagarritasun indizeetara irixtea. Ahalegin hori ez da behar adina ezagutzen ez eta baloratzen ere. Hau guztia derrigorrezko ikasgaietarako prestatzen diren testuliburuekin gertatzen dela kontuan hartuta, nor ausartuko da hautazko ikasgaietarako berariaz egindako euskarazko

liburuak argitaratzera, ikasgai hauetako ikasle kopurua edo merkatu potentziala askoz ere mugatuagoa izanik?

Horri guztiari, lantaldeak osatzeko orduan ditugun zailtasunak gehitu behar zaizkio. Kasu askotan irakaskuntzan diharduten irakasleak dira testuliburuak egiten dituztenak, eta ez da erraza suertatzen merkatu premiei eta eskakizunei erantzuteko premiazkoa den dedikazio eta azkartasunez jardun ahal izango duten egileak lortzea.

Euskaraz argitaratzen dugun argitaletxeon errealitateaz eta zailtasunez, beste hizkuntzatan (eremu handiagoko hizkuntzatan) argitaratzen duten argitaletxeekin merkatuan lehiatu ahal izateko zailtasunez- jakitun da Eusko Jaurlaritza. Hain zuzen, EIMA programaren bidez euskarazko ikasmaterialen sorkuntza diruz lagundu ohi du, bistakoa baita laguntzarik ezean euskarazko produktuak, tiradak txikiagoak izanik, askoz prezio garestiagoan merkaturatuko liratekeela, eta ezinezkoa litzatekeela beste hizkuntzetan ekoizten denekin baldintza berdinetan lehiatu ahal izatea. Gaur gaurkoz, euskarako liburugintzarentzat ezinbestekoak dira laguntza hauek. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere laguntzen die helbide fiskala Gipuzkoan duten argitaletxeei.

2.2. Ereduak eta horien ondorioak

Testuliburuaren ekoizpenari buruzko deskribapen azkar hori kontuan hartuta, ikus ditzagun doakotasun eredu bakoitzaren ezaugarriak eta ondorioak:

➤ **Mailegutza:** Ikasliburua ikastetxeak erosiko du, eta ikastetxearena izango da. Modu honetara liburu bera ikasle baten eskuetatik beste baten eskuetara igaroko da, ikasturte batetik bestera. Mailegutza sistema 4 bat urterako baliagarri izatea proposatzen da.

ONDORIOAK TESTULIBURUENTZAT

- 1) Doakotasuna modu ezegokian ezartzeak testuliburua gutxiestea ekarriko luke, liburuaren atzean dagoen ahalegin intelektualari balioa kenduko bailioke. Halaxe, argitaletxeen porrotarekin, eskaintzaren aniztasuna galduko litzateke, eta sormena eta sorkuntza —biak ala biak— eskatu eta kaskartuko lirateke.
- 2) Testuliburua ez estimatzeak beste edozein liburu ez estimatzea bihur liteke; hau da, liburuak kultura zabaltzeko elementu gisa duen balioaz ez jabetzea.
- 3) Sorkuntzari eta produkzioari bideak ixteak, ikasliburuak ez diren beste liburuen argitalpenen galera eragingo luke.

ONDORIOAK IKASLE / IRAKASLEARENTZAT

- 1) Ikasleen arteko ezberdintasunak areagotu ditzake. Frantzian gertatu bezala, baliabide ekonomikoak dituzten gurasoek beren seme-alabek liburu erabiliekin ikastea saihesteko liburu berriak erosten dizkiete. Ikasgela berean liburu erabiliekin eta berriekin ikasiko duten ikasleak egongo dira, beraien arteko ezberdintasunak areagotuz.
- 2) Liburu erabiliekin ikasi beharrak, ikasleen motibazioan eragin dezake. Halaber, testuliburua ez denez ikasle bakoitzarena, liburua ondo zaindu dezaten eskatzea are zailagoa egingo da.

3) Ikaslearen eta liburuaren arteko erlazioa aldatu egingo da. Autonomiaz lan egiteko, beharrezkoa da ikasle bakoitzak bere liburua izatea. Ikasleen jarrera ez da berbera liburua berea denean edo ez denean. Liburua berea izanez gero, ikasleak oharrak egin ditzake hegaletan, ideia nagusiak azpimarra ditzake, eta nolabait, oinarritzko ikasteknikak aplikatzen ditu edukiak hobeto ulertzeko. Aldiz, liburua usaturik iristen bazaio, erreparoz erabiliko du eskuartean, eta hori oztopo bihurtuko zaio ikasteko prozesuan. Beraz, liburuak mailegatzea atzerantz egitea litzateke higienean, metodologian eta informazioaren gaurkotasunean.

Halaber, irakasleak ere bere irakasteko modua aldatu egin beharko du, ezin izango dielako ikasleei liburuan azpimarrak, laburpenak edo oharrak egiteko eskatu. Irakaslearen eginkizuna izan behar al du, gainera, liburuari erabilera ona eta txukuna ematen dion ikaslea saritzea eta kontrakoa, aldiz, zigortzea?

ONDORIOAK IKASTETXEARENTZAT

- 1) Ikastetxeei izugarritzko gestio lana eragin diezaieke sistema honek. Ikastetxe asko ez dago horretarako prestatuta.
- 2) Mailegu bidezko doakotasunak Ikastetxeko Curriculum Proiektuak baliogabetu ditzake neurri batean, edo alferrekoa bihurtarazi irakasle-taldeak landu eta klaustroak eta eskola-kontseiluak onetsitako lan mardula.

ONDORIOAK LIBURU-DENDENTZAT

- 1) Ikasliburuak oinarri sendoa dira gaur egun liburu-denden sostengurako. Liburu-denden urteko fakturazioan % 40 ikasliburuak dira eta ikasliburuekin zerikusia duten material osagarriek beste ehuneko garrantzitsu bat dira. Mailegutza sistemak liburu-dendei zuzenean eragingo die,

ikastetxeek argitaletxeei edo banatzaileei erosiko dietelako zuzenan liburua. Arian-arian, liburu-denda sarea desegingo da (mailegutza aplikatu den autonomia erkidegoetan gertatu bezala).

2) Liburu-dendak ixteak bestelako liburuen salmenta kopuruen beherakada ekarriko du. Liburua merkatuan egotea mugatzen bada ondorio larriak eragingo ditu hizkuntza eta kulturari dagokionean. Liburu-dendak auzoetan produktu kulturalak eskaintzeko tokiak badira, eta gizarteari irakurzaletasunaren aldeko mezua igortzen bazaizkio, familiek liburu-dendetara joateko aukera izan behar dute.

ONDORIOAK ARGITALETXEENTZAT

1) Argitaletxeak testuliburuetan egindako inbertsioa berreskuratzeko behar duen hiruzpalau urteko tarte hori hirukoiztu edo lauukoiztu egingo da mailegutza sistemarekin. Horrek esan nahi du 10-12 urte behar direla euskarazko ikasliburu batean egindako inbertsioa errekuiperatzeko. Ondorioa gordina da: argitaletxeek ezingo dute horrenbeste arriskatu eta argitaratzeari utziko diote. Horrek, halaber, aniztasunaren kaltetan jokatu du.

2) Liburuak ezin izango dira urte askoan berritu, eta zaharkituta gelditzeko arriskua asko areagotuko da. Gaur egun ahalegin berezia egiten da ikasliburuetan jasotzen diren edukiak eta gaiak egungoak izan daitezen eta material modernoa izan dadin. Gutxienik 10-12 urtean amortizatu ezin honek, ezinezko egingo du aldian-aldian edukiak aldatu eta eguneratzea.

3) Argitaletxeak desager litezke. Testuliburuak egiten dituzten argitaletxeek, ikasliburuak ezezik, bestelako liburuak ere ekoizten dituztenez, mailegutzak liburugintza ekoizpen osoa jar dezake arriskuan.

4) Argitaletxeetan lan egiten duten profesionalei kalte zuzena egingo lieke, bai, baina baita argitaletxeontzat autonomo gisa lan egiten duten beste

askori ere. Egun sortzaile, zuzentzaile, maketatzaile, diseinagile, informatikari, marrazkilari, infografo, inprenta... kontuan hartuta, ehundaka dira mailegutzak kolpa ditzakeen profesionalak eta lanpostuak.

5) Izaera jakin batzuetako testuliburu kasuan, fotokopiak egitea bultzatu dezake neurri honek.

➤ **Laguntza zuzena:** Ikasliburua ikaslearena izango da. Ikasleak berak erosiko du berak nahi duen lekuan ikastetxeak aholkatutako liburua. Familiari laguntzeko formulak:

a) liburuak ordaintzeko orduan, ikasle bakoitzak Administrazioak luzatutako txeke bat izatea

b) Liburuen gastua Errenta Aitorpenean kitatzea, fakturak aurkeztuta

ONDORIOAK

1) Ikaslea edo gurasoak joango dira saltokietara edo liburutegietara zuzenean eta kontaktu zuzena izango dute liburuarekin. Familia askorentzat urtean zehar liburuarekin izango duten kontaktu bakarra izaten da hori.

2) Erosiko duten liburua “ordainduta” dutelarik, bestelako liburuak, osagarriak edo irakurgaiak erosteko aukera edo posibilitate gehiago ikusiko dute eta honek areagotu egin dezake bestelako liburuen salmenta. Andaluzian esate baterako, txeke bidezko zuzeneko laguntzak indarrean izan ziren bitartean, aipatu bestelako liburuen salmentak %30ean igo ziren.

3) Salmenta kateari ez dio kalterik egiten; alderantziz, indartu egin dezake bestelako produktuen erosketa errazten den neurrian.

3. TESTULIBURUAREN BALIOA

Testuliburua funtsezkoa da hezkuntza-jardunean. Ikasleari laguntzen dio ezagutzak garatzen, trebetasunak lantzen eta balioak onartzen; hots, tresna garrantzitsua da ikasleak ikasten ikas dezan. Ideiak argitzeko eta aberasteko modua ematen dio, hainbat baliabideren bidez: azalpen-testuak, analogiak, hitz-giltzak, eskemak, kontzeptu-mapak, eta abar.

Irakaslearen oinarrizko tresna ere bada, aukera eskaintzen baitio dagokion ikastaldearen arabera baliabide didaktikoak aukeratzeko. Hasteko, arlo edo jakintzagai bakoitzeko oinarrizko edukiak hautatu eta antolatzen ditu. Gainera, irudiak nahiz testuinguruak zaintzen ditu, edukiak kokatzearekin batera, informazioa egokiro emanez. Eta abiapuntua programazioa denez, testuliburuan koherentziaz txertatzen dira unitate didaktikoak, horien sakontasuna eraz neurtuta.

Argitaldarien, testuliburuak lantzerakoan, hainbat alderdi izaten ditugu kontuan, hala jakintzagaiaren beraren edukiak nola egoeraren araberako aldagaiak (ikasle motak, ikasle horiek dituzten aldez aurreko ezagutzak, irakasleak saioak prestazeko duen denbora, eta abar). Alegia, testuliburuak hausnarketa sakonen fruitua izaten dira, eta berezko balioa dute, bai hezkuntza-elkartearentzat, osotasunean hartuta, bai norbanakoarentzat.

Testuliburuaren berezko balio hori, -gainerako liburuei buruz ere gauza bera esan genezake- azpimarratu nahi dugu. Berezko balio ez da derrigorrez dirutan

ordaindu behar, baina dohakotasunaren arriskuez ohartarazi nahi dugu, denok baitakigu kostu ezak edo ordaintzen ez denak, sarri askotan balioa galtzen duela. Kostu eza, neke ezarekin identifikatzeko joera ukaezina da edozein ekonomia-sistematan. Horrenbestez, liburua ez erosteak dakarren diru-aurrezkoa familientzat onuragarria izan badaiteke ere, ez da bazterrean utzi behar liburuak gizartean kontrapisu kulturala egiteko duen eraginkortasuna.

Testuliburuaren balioa lau ikuspuntutik, gutxienez, azpimarra daiteke:

- 3.1. Testuliburua eta Euskal Curriculuma
- 3.2. Testuliburua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua
- 3.2. Testuliburua eta sortzaileak
- 3.4. Testuliburua eta gainerako materialak

3.1. Testuliburua eta Euskal Curriculuma

Informazioaren, ekonomiaren eta kulturaren globalizazioak desabantailan jartzen ditu erkidego txikiak. Euskal Herriak, nortasun nazional handiko herria izanik, kanpora begira egotearekin batera, bere-berea den ondarea kudeatzen eta sozializatzen jarraitu behar du, orain arte egin diren urratsei segida emateko. Zeregin horretan —hezkuntza euskaraz gauzatzea eta hezkuntza euskalduna gauzatzea— nahitaezkoa da argitaletxeen ekarpena. Horrenbestez, argitaletxeek oso gogoan dugu eta izan beharko dugu HUISak, Euskal Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuaz erakundeek berriki argitaratutako *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma*.

Bestalde, gorago esan bezala, ezagun dugu Administrazioak kulturgintzan jarduten duten erakunde eta elkarteekiko erakutsi izan duen sentsibilitatea. Hezkuntza Sailak berak ia hogeita bost urtez bultzatu du euskarazko materialgintza, besteak beste EIMA I, II, III eta IV deialdien bidez, bai sorkuntza-lanari, bai produkzioari diruz lagunduz, ezinbestekoa baita argitaletxeen parte-hartzea:

- Edukien iturburua bermatzeko
- Euskal hizkuntza eta literatura curriculumaren arlo gisa irakasteko
- Gainerako jakintzagaiak euskaraz irakasteko materialak egiteko
- Ikastetxeetan euskararen erabilera ahalbidetzeko
- Tokian tokiko edizioak sortzeko
- Euskararen normalizazioan laguntzeko, batzuetan, premiak hala eskatuta, arautegiei eta hiztegiei ere aurrea hartuz, hizkuntza espezifikoa “egitea edo sortzea” suertatu zaigulako, izan arlo teknikoetako, izan arlo humanistikoetako, liburuak idatzi ahala.
- ...

Gogora dezagun, halaber, gure curriculumak ez dela oraindik guztiz garatu, izaeraz dinamikoa dela, eta konprezioa oraindik ere burutzeke den neurrian, nahitaezkoa dela bideak zabalik edukitzea edukiak modu batera edo bestera islatu ahal izateko modu bateko edo besteko material profesionaletan. Beste hitz batzuekin esanda, argitaletxeak autozentramentu kulturalaren abangordian egon behar dugu.

Aipaturiko deialdien xedea euskarazko liburuen errentagarritasunari laguntzea bada, defizita arinduz, Hezkuntza Sailak ez luke argitaletxeon bideragarritasun ekonomikoa begi-bistatik galdu behar doakotasuna ezartzeko unean.

3.2. Testuliburua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua

Azken hamarkadan milaka ordu erabili dira eskola-esparruan Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICPa) zer den, eta nola egin eta egokitu behar den irakasten. Administrazioak ahalegin handia egin du, eta ikastetxeak ere gogotsu saiatu dira beren dokumentuak gauzaten. Dokumentu horiek ikastetxe bakoitzaren plangintza dira, eta ikastetxearen interesei eta premiei errealismoz erantzutea da haien funtsa.

Hezkuntza-helburuak erdiesten lagunduko duen tresna pedagogiko-didaktikoa denez gero, bertan zehazten da zer irakatsi behar den, noiz eta nola, baita zer, noiz eta nola ebaluatu behar den ere, honako hauek osatzen baitute:

- Etapako helburu orokorrak
- Etapako edukiak antolatzeko irizpideak
- Oinarri metodologikoak eta arloko edukiak
- Estrategiak eta ebaluazio-irizpideak

Kontuan izanik ikastetxe bakoitzaren proiektua berezia dela, ikastetxeak askatasuna behar du bere helburuei erantzuteko eta bere jarduna bideratzeko

baliabide jakinak aukeratzeko. Baliabide nagusiak material didaktikoak izaten dira gehienbat, hainbat abantaila azaltzen dituztelako: pentsamenaren tresnak dira; ikasteko gogoia pizten dute; informazioa egituraturik aurkezten dute; prozesu metodologikoak errazten dituzte; ideiak, sentimenduak, bizipenak eta balioak adierazteko bideak dira; eta irakaskuntza berriztatzeko arrastoak eman ditzakete.

Material didaktikoen multzo zabalean, testuliburua izaten da erreferente zuzenena. Izan ere, testuliburuan zehaztasunez adierazten baita zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu ikasmaita bakoitzean. Gainera, ikaslearen liburua bestelako materialez hornituta eskaintzen da: irakaslearen gidaliburuak, programazioak, jarduera osagarriak, orotariko proposamen didaktikoak... Guztien xedea da hezkuntza-egoera bakoitzari erantzuteko moduak luzatzea eta irakaslearen jarduna unean-uneko egoerari egokitzen laguntzea.

3.3. Testuliburua eta sortzaileak

Testuliburua ez da produktu soil bat, besterik gabe, erabili eta bazter uzteko kontsumo-material iraugarri bat. Premia bati erantzuten dio, eta irakaskuntzaren oinarri eta funtsa da. Kulturazko elementua da, hiru kapital baliotsu aldi berean bateratzen dituena:

- Adierazteko askatasuna
- Egilearen talentua
- Egileak irakasle gisa duen eskarmentua

Testuliburua idaztera jartzen denak ez du, normalean, konpromiso hori hartzen diru-sarreraren espero hutsean edo bere buruaren luzimendurako. Edukiak igortzeko idazten du, funtsean bizitzari buruzko egonezina eta jakin-mina itzali ez zaizkiolako. Gehientsuenetan, egileak irakasleak izaten dira, eta presente izaten dute beraiek ere ikasle izanak direla. Idazteko ariketa horretan, artean ere gauza biak —ikasle eta irakasle— izaten jarraitzeko borondatea erakusten dute, liburua idaztea bera ikaskuntza-prozesua baita egilearentzat.

3.4. Testuliburua eta gainerako materialak

Kasu batzuetan, testuliburua liburu industriaren dinamizatzaile ere bada, eta haiek emandako etekinak berrinbertituz gauzatu ahal izaten dira bestelako produktu horiek. Batzuek besteen premia dute, izateko. Hala nola:

- Zehar-lerroak lantzeko materialak
- Pedagogia-liburuxkak, edo ildo pedagogikoak lantzeko argibideak; esate baterako, tutoretza-materialak
- Zehar-lerroak eta balioak, orohar, lantzeko materialak
- Erligio eta etika edota ordezeko arloen inguruko materialak
- Literatura-liburuak
- Haur eta gazteentzako literatura
- Dibulgazio-liburuak
- Kontsulta-materialak (hiztegiak, entziklopediak...)
- Komikiak
- Euskarri digitalean argitaratutakoak edo teknologia berrien bidez maneiatzeko orotariko materialak (hasi jokoetatik eta ariketa-bildumetan bukatu). Arlo honetan, argitaletxeok urrats geldiak eginez goaz, baina ez

teknologia horien garrantziaz kontziente ez garelako, bistakoa baita informazioaren gizartearen zer-nolako eginkizuna duten, baizik eta, multimedia egitasmoak gauzatzeko egin beharreko inbertsioak oso handiak izanik, euskarazko merkatu mugatuan errentagarritasuna bilatzea oso nekeza da, zenbait egitasmotan ia ezinezkoa.

- ...

4. ESKARI ZUZENA

Aurretik esandako guztia kontuan izanik, Euskal Editore Elkarteak honakoa adierazten du:

- Argitaletxeok kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Gure aldetik, egungo gizartearen premiei eta curriculum edukiei erantzungo dien kalitatezko testuliburuak ekoizteko konpromisoa berresten dugu.
- Testuliburuaren doakotasuna ezartzeari ez diogu oztoporik jarri nahi.
- Testuliburuak mailegutza sistemaren bidez ezartzeak eragin ditzakeen ondorio larriei buruz ohartarazi nahi ditugu gizarte-, kultura- eta hezkuntza-eragileak.
- Mailegutza sistema baztertzea, eta halaber, familiak lagunduko dituen eta liburugintza sektorea babestuko duen eredu bat ezar dadila eskatzen dugu.
- Testuliburu eta, liburua orohar, bultzatzeko eta balioztatze politikak eraginkorra eta arduratsua egin dezaten eskatzen diegu eragile politikoei. Hain zuzen, Euskal Herriko kultur industriak urteetan egindako ahalegina kontuan hartu eta gure industriaren aldeko apustua egin dezaten eskatzen diegu. Era

berean, egile edo sortzaileen ekarpena aintzat hartu, babestu eta sustatzeko eskatzen diegu.

- Testuliburuaren doakotasunari buruzko gure iritzia emateko eta ekarpenak egiteko prestutasun osoa adierazten diegu erabaki ahalmena duten eragile guztiei, bereziki, hiruko Gobernuari eta EAEko talde parlamentari guztiei.

Euskal Editoreen Elkarte

2005eko abendua